

Izenburua	Euskaraldia Batxilergorako jarduerak
Formatua	Unitate didaktikoa
Egilea	Euskaraldia
Kontaktua	info@euskaraldia.eus / 946 215 780
Nori zuzendua	Batzilergoko ikasleei
Helburuak	<p>Material didaktiko honen helburu nagusiak hiru ataletan banatuta daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaraldia: euskarri anitzek, Euskaraldian girotzeko eta ariketaren kontzeptuak ezagutzeko sei ariketek, osatzen dute. Atal hau, bereziki, azaroaren 23aren aurretik lantzeko izango da; euskal gizartea bera ere, tokian toki, azken prestaketa lanetan ibiliko denean. • Erabilera: hausnarketak eta ekintzak, hizkuntza jarrera eta portaeretan eragiteko. Ariketa bideragarriak, baina, aldi berean, hizkuntza-ohituren gaineko gogoeta ekarri nahi dutenak. Atal hau bereziki Euskaraldiaren garaian lantzeko izango da, hain zuzen ere, Ahobiziak eta Belarriprestak bete-betean ibiliko direnean hamaika egunez. • Eta aurrera begira zer? Euskaraldian landutakoan eta bizi izandakoan oinarrituta, eguneroko bizitzan euskararen erabilera areagotzera bideratutako konpromisoak jasotzen dituzten ariketek osatzen dute atal hau. Euskararen egunaren ondoren lantzekoak izango lirateke.
Metodologia	Hemen proposatuak diren jarduerak gauzatzeko, alderdi curricularra eta ez-kurrikularra erabiltzea gomendatua da ikastetxean: proposatzen dena gauzatzeko irakasle guztien ardura da. Arlo desberdinetako irakasleek erabaki beharko dute ariketa bakoitza zein ikasgaitako saiotan garatuko duten, beti ere finkatutako epeak aintzat hartuta. Horretaz gain, ariketa batzuek curriculumarekiko duten lotura adierazten da.
Denboralizazioa	Unitatea hiru fasetan banatuta dago:

	<p><u>a) Euskaraldiaren aurretik:</u></p> <p>O. Irakasle eta ikasle dinamizatzailer taldearen osaketa (Irailan)</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Euskaraldian girotzeko, egitasmoaren kontzeptuak ezagutzeko eta edizioaren ezaugarrien zabalkundea egiteko ariketak. (Irailan) 2. Ahobizi/Belarriprest prestakuntza saioak (Urrian) 3. Norbanakoen ahobizi-belarriprest hautaketa (Urrian) 4. Euskaraldia hastear dago. Lan banaketa (Azaroan. Azaroaren 20a aurretik) <p><u>b) Euskaraldia bitartean (Azaroaren 20tik abenduaren 4ra):</u></p> <p>Oso garrantzitsua izanen da 15 egunetan zehar girotze lana mantentzea ez bakarrik aurretik eta ondoren. Tentsioa mantentzeko bidean ager daitezkeen oztopoak eta konponbideak partekatuzeko, hizkuntza-jarreraren zein hizkuntza-onituren inguruan gogoeta sakonak aktibatuzeko jarduerak egiteko ariketak aurkituko dituzue hemen.</p> <p><u>d) Euskaraldiaren ondoren (Abenduan)</u></p> <p>Euskaraldian landutakoan eta bizi izandakoan oinarrituta eguneroko bizitzan euskararen erabilera areagotzera bideratutako eta hizkuntza portaera emankorrak sustatzeko ariketek osatzen dute atal hau.</p>
<p>Eranskinak</p>	<p>Unitate didaktikoa (2020)</p> <p>https://labur.eus/zvia4</p>